

→ urteko kronologia →

4 ■ Iker Sarriegiren agurra

Erabaki hori aspaldian bueltaka ibili ondoren, belauneko lesioak eraginda futbola utziko zuela iragarri zuen Realeko jokalaria Iker Sarriegik. Hiru urtetan bost ebakuntza egin zizkioten donostiarrari.

7 ■ Andres Kloden Euskal Herriko Itzulan

Telekom taldeko Andres Kloden alemaniarrek irabazi zuen Euskal Herriko Itzulia. Azkoitia eta Madariaga arteko kronoigoeran erabaki zuen itzulia alemaniarrek. Di Lucak eta Jalabertek osatu zuten podiuma.

12 ■ EHSFk Espainiakoan ez sartzea erabaki

Euskal Herriko Surf Federazioak (EHSF) Espainiakoan ez sartzea erabaki zuen Sopelan egindako ezohiko batzarrean. Era berean, Munduko Surf Federazioari sarrera eskatzeko asmoa azaldu zuten.

25 ■ Iñurrategi analak Manasluko gainean

Alberto eta Felix Iñurrategi anaiek Manasluko tontorra zapaldu zuten goizean goiz (8.163 m.), euren hamaikagarren zortzimilakoa lortuz. Hotzarekin asko sufritu zuten bi anaiek.

26 ■ Julio Salinasen agurra 18 urteren ondoren

Denboraldia amaituta futbola utziko zuela jakinarazi zuen Julio Salinasek. Hemezortzi urtean jardun zuen goi mailan, baina jada ez omen zen «beharrezko jokalaria sentitzen».

Portland Errekopako txapeldun



Portland San Antoniok estreinakoz irabazi zuen Europako Errekopa, finalean Hungariako Dunaferri irabazita. Iruñean bederatzigolez nagusitu ziren nafarrak (27-18). Bazirudien finala erabakita zegoela, baina Dunaferrek lanak eman zizkion Portland San Antoniori itzulikoan. Azkenean, partidua galdu arren (26-20), Iruñeara ekarri zuten Europako Errekopa Zupo Ekisoinen gizonak.

MAIATZA

5 ■ Gino Bartali handiaren heriotza

Gino Bartali *Burdinazko gizona* hil zen, 85 urte zituela. Hiru Giro eta bi Tour irabazi zituen profesionalean aritutako ia 20 urteetan. Fausto Coppiarekin izaten zituen lehiak Italia bitan banatu zuten.

6 ■ Bidasoa European Jokatzeko sailkatu

Kantabria kanporatu eta Asobal Ligako finalerdietara sailkatzearekin bat, Europako EHF kopan aritzeko txartela lortu zuen Bidasoak.

6 ■ Euskaltel-Euskadiren lehenengo Itzulia

Mikel Artetxek izan zuen Euskaltel-Euskadi taldearentzat aurreneko itzulia irabazteko ohorea: Portugalgo Journal de Noticias. Bi etapa ere irabazi zituen Artetxek.

12 ■ Gonzalez nagusi Bigarren Mailakoan

Sebastian Gonzalez pilotari azkaindarrak irabazi zuen Bigarren Mailako finala, Atano III. pilotalekuan, Xabier Imaz mendean hartuta (22-15). Txapela lortzeaz gain, Lehen Mailan aritzeko txartela ere eskuratu zuen Gonzalezek.

13 ■ Saralegi 328koa

Miel Saralegi leitzarrak 328ko harri errektularra altxatu zuen, Olatzen (Nafarroa). Hirugarren ahalegina zuen harri horrekin, eta garbi jaso zuen harria.

13 ■ Bidasoak ezin Bartzelonarekin

Asobal ligako finalerdietan Bartzelonak ez zion aukerarik eman Bidasoari. Bartzelonan eta Irunen jokaturako bi partidua erraz irabazi zituzten katalanak.

17 ■ Galatasaray nagusi UEFAko finalean

Turkiako futbolak Europako

bere lehen txapelketa irabazi zuen. Kopenhagen, Galatasaray Arsenal hartu zuen mendean penalti jaurtiketetan. Partidua hutsean amaitu zen, eta 11 metroetatik turkiarrak hobeak izan ziren (4-1).

19 ■ Futbol Liga amaituta, Alaves UEFAra

Futbol denboraldiko azken jardunaldian Athleticen aurka galduta, Txapeldunen Ligara sailkatzeko aukera guztiak galdu zituen Alavesek. Hala ere, UEFA ere lorpen handia izan zen gasteiztarrentzat. Athleticen eta Realak atzerago amaitu



HAMABOSTEKARIA

GOIERRITARRA

Dorre Etxea, 1 - 124 Pk. - Tel.: 943 88 96 12 / Faxa: 943 88 27 19

ORDIZIA

GOIERRI OSORA
LEIHO BAT
ZABALIK

Kale nagusia, 38
BEASAIN
Tel.: 943 80 53 11
Faxe: 943 80 56 42
e-mail: urolabea@jet.es

Arana kalea, 1
AZPEITIA
Tel.: 943 15 08 04
Faxe: 943 15 08 44
e-mail: urolaazp@jet.es

Txomin Agirre, 1
ZUMAIA
Tel.: 943 86 21 69
Faxe: 943 86 21 63
e-mail: urolazum@jet.es

MIMBEK



New Paper

Paperen Banaketa Taldea

Eskolako Materiala

• Real Sociedad-en eskolarako materialaren banatzaile ofiziala.



• Aukera handia mota guztietako postaletan.

• Handizkako salmenta.

Donostia kalea, 2 - 4
943 61 77 79 - Faxe: 943 61 96 56

20301 IRUN
(Gipuzkoa)

10 Egunkaria
urte

Zorionak Euskal Herria